

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

196/2019 Foru Agindua, uztailaren 26koa, hasierako onespena ematen diona Lantarongo lurzoru urbanizaezinean Larrazubi eta Fontecha hornitzeko ur biltegi berria eta loturak eraikitzeke proiektuaren interes publikoaren adierazpeneko espedienteari, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak sustatua

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko Herrilan Atalak Lantarongo Udalarari obra lizentzia eskatu dio udalerrri horretako 3 poligonoko 743 lurzatian ur biltegi berria eraikitzeke, Larrazubi eta Fontecha hornitzeko. Eskaeran jasotzen denaren arabera, obra beste proiektu handiago baten zatia da, hain zuzen, Sobron sistemaren egungo hornikuntza hoditeria berriztatzea, bidebanatzeetik Bergondarantz; biltegi berri komuna egitea Larrazubi eta Fontecha guneeetarako; eta desbideratzea Larrazubira banaketa hoditeria biltegi berritik. Obrak arinago egiteko asmoarekin, bi fasetan banatu dira. Lehenengo fasea da soilik biltegi berria egitea eta egungo sareei lotzea.

Lantarongo Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen barruan proiektu teknikoa dago, zeinaren arabera biltegiak 402 metro kuborako edukiera izango baitu, eta hormigoi armatuzkoan egingo den. Giltza ganbera bat izango du hormigoi armatuzkoan ere bai, 6,50 x 5,60 metrokoa barruan oinplanoan eta 5,40 metro garaierakoa. Egun dauden biltegietak ur sarrera eta irteera hodi guztiak biltegi berrira lotuko dira. Hauexek dira aurreikusitako hodiak: gerora helduko dena Sobron sistematik, Montecilloko zundaketatik sartzen dena, Larrazubi eta Fontechako banaketa ardatz biak, hartune elektrikoko bi hodi kutxatilekin eta biltegi berriko hustubide hodi bat. Obra bukatzeko, sarbidea hormigoituko da biltegiatik ateraino. Behin biltegi berria abian jarrita, aurreikusten da botatzea Larrazubi eta Fontechako bi biltegi zaharrak, eta hondakinak kendu eta ingurua txukuntzea.

Udalak udal arkitektoak egindako txostena aurkeztu du, non jasotzen den 35-3-743 katastro erreferentziako lurzuria lurzoru urbanizaezinean sailkatutako lurra dela eta 2. zonan kalifikatuta: "Substratu hauskorrean babestu beharreko nekazaritza eta abeltzaintza babes zona", udalerriko indarreko arau subsidiarioetan jasotakoaren arabera, eta erabilera baimendu gisa hartzen du onura publiko eta interes sozialeko instalazioak eta azpiegiturak jartzea, arau horien 201. artikuluen arabera. Txostenean ere jartzen du Araba Erdialdeko LPParen antolamendu arauen arabera ez dagoela eragozpenik egin nahi den instalazioa kokatzeko aipatutako lurzatian Fontechan, eta lizentzia lurralde planeamendurekin bat datorrela justifikatzen dela.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espediente ebatzeko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezartzen duen araubideari jarraituz, lurzoru urbanizaezinean "ezin da beste jardunik gauzatu aplikatzeko den legedia sektorialak edo lurralde planeamenduak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak baizik, baldin eta,

gainera, dagokion foru diputatuaren ebazpenaren bidez, interes publikokotzat jotzen badira, aldez aurretik hogeï egunez jendaurrean edukitzeko izapidea beteta”

Aztertzen ari garen kasu honetan, hasierako onarpena izapide egintza bat da, hots, prozedura bultzatzen duena eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen egintza bat baizik ez, eta ez du aldez aurretik eragiten, inondik inora, behin betiko onarpenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dauzkadan ahalmenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea Lantarongo 3 poligonoko 743 lurzatian Larrazubi eta Fontecha hornitzeko ur biltegi berria eta loturak eraikitzeke proiektuaren interes publikoaren adierazpeneko espedienteari, hain zuzen, Sobron sistemaren esparruan egungo hornidura hoderia berriztean datzan beste proiektu handiago baten I. fasea dena, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak sustatua.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeï egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 26a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO